

## Euskalingua 32

### Aurkezpena

Irakurle on hori,

Oraingoan Euskalingua 32 dakargu argitara, artikulua bigaz. Bata, B. Bilbaok, K. Perezek eta G. Ezkurdiak; 1918ko Euzko Ikaskuntzako lehen kongresuari buruz dihardute. Bestea, Maribi Unamunok egin dau, Aulestiko emakumeek ondareari egindako ekarpenari buruzkoa. Artikulu biotan, neurri diferentean bada ere, emakumeek egin dioten ekarpena da aztergai.

Begoña Bilbaok, Karmele Perezek eta Gurutze Ezkurdiak hoin dala ehun urte egindako kongresuko informazioa aztertu dabe *Euzko Ikaskuntzako lehen kongresuko «irakaskuntza» arloko ekarpenak* izenpean. Izenburu adierazgarria; artikuluan dinoenaren arabera, hezkuntzaren estatusa aztertu eben, alegia, Bizkaiko auzo-eskolen izaeran, ikasmaterialen beharrezanean eta nolakotasunean eta, baita, maisu-maistren izaeran aldaketak eragin omen zituen 1918ko kongresu hartan esandakoak, zeren bide pedagogiko berriak proposatu ziren. Garaiko politikari, pentsalari eta hezitzaileen ponentziak, lau guztira, entzuteko aukera izan zan bertan. Han aurkeztutakoaren eraginaz gain, aipagarritzak dabe artikulua honen egileek, batetik, partehartzaileen artean 65 emakume izatea eta, bestetik, horreetariko batek, Adelina Méndez de la Torre andereak, hizlari jardun izana.

Bigarren artikulua Maribi Unamunok egin dau. Ondarearen Europako Jardunaldien programaren barruan, Aulestin, *Ondarea, Emakumeen emaria* izeneko jardunaldiak antolatu ziren 2018ko urrian eta hortxe aurkeztu eban Unamunok andereak *Emakumeak ondarearen transmisioan. Hari luzea* izeneko artikulua. Ibilbide kronologikoari jarraiki, 1825etik abiatuta XX. mendearen azkenera arteko analisia egin dau. Bertan emakumearen presentzia gizartean adierazten daben jarduerak hartu ditu kontuan, hortik ondorioztatzeko ixilean baina eten barik emakumeek izan daben presentziak gizarteari eta kulturari, azken baten, ondareari egin deitson ekarpenaren handitasuna.

Euskalingua 32ko artikuluek eskaintzen daben informazioari interesgarri iritziko deitsezulakoan, hurrengo zenbakira arte agurtzen zaitugu.

Aulestin, 2018ko maiatzaren 30ean

Lorea Unamuno	lorea.unamuno@ehu.eus
Maribi Unamuno	victoria.unamuno@ehu.eus
Udane Goikoetxea	udane.goikoetxea@ehu.eus

Koeditoreak